



**Datuk Babesteko**  
Euskal Bulegoa  
Agencia Vasca de  
**Protección de Datos**



**DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN, EUSKAL HERRIKO TELEKOMUNIKAZIO INGENIARIEN ELKARGO OFIZIALAREN ETA EUSKAL HERRIKO TELEKOMUNIKAZIO INGENIARIEN ELKARTE OFIZIALAREN ARTEKO LANKIDETZAKO ESPARRU HITZARMENA**

**CONVENIO MARCO DE COLABORACIÓN ENTRE LA AGENCIA VASCA DE PROTECCIÓN DE DATOS, EL COLEGIO OFICIAL DE INGENIEROS DE TELECOMUNICACIÓN Y LA ASOCIACIÓN DE INGENIEROS DE TELECOMUNICACIÓN DEL PAÍS VASCO**

Vitoria-Gasteizen, 2014ko azaroaren 17an

En Vitoria-Gasteiz, a 17 de noviembre de 2014

### BILDU DIRA

### REUNIDOS

Alde batetik: Colegio Oficial de Ingenieros de Telecomunicación del País Vasco-Euskal Herriko Telekomunikazio Ingeniarien Elkargo Ofiziala (aurrerantzean "COITPV-EHTIEO") eta Asociación de Ingenieros de Telecomunicación del País Vasco-Euskal Herriko Telekomunikazio Ingeniarien Elkarte Ofiziala (aurrerantzean "AITPV-EHTIE"), COITPV-EHTIEOko dekanoa eta AITPV-EHTIEko lehendakaria den Alvaro Urbiena Alonso jaunak ordezkaturak biak, bi erakundeetako estatutuek esleitutakoa eta erakunde bietako gobernu batzordeek hartutako erabakiek xedatutakoa betez.

De una parte: El Colegio Oficial de Ingenieros de Telecomunicación del País Vasco-Euskal Herriko Telekomunikazio Ingeniarien Elkargo Ofiziala (en adelante "COITPV-EHTIEO"), y la Asociación de Ingenieros de Telecomunicación del País Vasco-Euskal Herriko Telekomunikazio Ingeniarien Elkarte Ofiziala (en adelante "AITPV-EHTIE"), ambas representadas por D. Álvaro Urbiena Alonso en su calidad de decano de COITPV-EHTIEO, y de presidente de AITPV-EHTIE y de acuerdo con las atribuciones recogidas en los respectivos estatutos y en los acuerdos adoptados por la Junta de Gobierno de cada institución.

Eta beste aldetik: José Ignacio Pariente de Prada Jauna, Datuk Babesteko Euskal Bulegoaren (aurrerantzean DBEB) zuzendaria, Bulegoaren ordezkari gisa eginez, otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 15. artikuluan xedatutako eskumenak kontuan hartuta bere izendapena egin zuen 68/2012 Dekretuari jarraiki (2012ko maiatzaren 14ko 93 zk.ko EHAA).

Y de otra parte: D. José Ignacio Pariente de Prada, Director de la Agencia Vasca de Protección de Datos / Datuk Babesteko Euskal Bulegoa (en adelante AVPD), actuando en representación de la misma, en virtud de su nombramiento por Decreto 68/2012 (BOPV nº 93 de 14 de mayo de 2012) acorde con las atribuciones conferidas según artículo 15 de la Ley 2/2004, de 25 de febrero.

Bakoitzak bere erakundearen izenean eta ordezkari gisa jarduten du, eta bata besteari aitortzen diote Lankidetzaren Hitzarmen hau izenpetu ahal izateko jarduteko legezko gaitasuna. Era berean,

Las partes actúan en nombre y representación de sus entidades respectivas, reconociéndose mutuamente la capacidad jurídica de obrar necesaria para la celebración del presente Convenio Marco de Colaboración y,



**Datuak Babesteko**  
Euskal Bulegoa  
Agencia Vasca de  
Protección de Datos



## ADIERAZTEN DUTE

Lehenengoa.- COITPV-EHTIEO korporazio sektorial bat da, eta bere helburuak dira, bestek beste, lanbideko teknologien aurrerabidea sustatzea eta bultzatzea, horien zabalkundea egitea eta lanbidea hobetzeko eta elkargokideak prestatzeko oro har legez burutu daitekeen beste edozein jarduera burutzea. Bestalde, COITPV-EHTIEOk prestakuntza, gardentasuna eta ezagutza eta esperientzia trukatzeko jarduerak bultzatu nahi ditu telekomunikazioen eta informazioaren gizartearen esparruarekin zer ikusia duten erakunde eta organismoen artean, eta administrazio publikoekin lankidetzan aritu ere bai, bere estatutuek xedatutakoaren arabera; oro har gizarterenak diren interesak zainduz.

AITPV-EHTIE elkarte bat da, nortasun juridiko propioa eta jarduteko erabateko gaitasuna ditu, eta COITPV-EHTIEOrekin koordinatuta jarduten du bere helburuak betetzeko eta bere eginkizunak gauzatzeko. Elkartearen zeregin garrantzitsua da telekomunikazio ingeniariak ordezkatzeko eta haien interesak defendatzeko, eta Informazioaren Gizartearen garapena bultzatzea Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE). Elkartearen helburuen artean dago telekomunikazio ingeniarien lanbidea eta lanbidearen garapena eta aurrerabidea sustatzea, azterlanak egitea, txostenak prestatzea eta telekomunikazio ingeniariari dagozkien bestelako jarduerak burutzea.

Bigarrena.- Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 10. artikuluko 1. paragrafoak xedatzen duela DBEB zuzenbide publikoko entea izango

## EXPONEN

Primero.- Que el COITPV-EHTIEO es una corporación sectorial de base privada, entre cuyas finalidades se encuentra impulsar y contribuir al progreso de las tecnologías propias de la profesión, la difusión de las mismas y, en general, la realización de todas las otras actividades que legalmente puedan desarrollarse por el perfeccionamiento de la profesión y el de sus colegiados. El COITPV-EHTIEO además, tiene interés, al fomentar actividades de formación, transparencia e intercambio de conocimientos y de experiencias entre entidades y organismos relacionados con el sector de las telecomunicaciones y la sociedad de la información, en colaborar con las diferentes Administraciones Públicas conforme a lo que está recogido en sus Estatutos, velando, además, por el respecto a los intereses de la sociedad en general.

Que la AITPV-EHTIE es una asociación, con personalidad jurídica propia y plena capacidad para obrar, que para el cumplimiento de sus finalidades y en el desarrollo de sus funciones, actúa coordinadamente con el COITPV-EHTIEO. Su cometido principal es la de representación y defensa de los intereses de los ingenieros de telecomunicación y el impulso del desarrollo de la Sociedad de la Información en la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV). Sus metas van encaminadas a contribuir al desarrollo, al progreso y al fomento de la profesión de ingeniero de telecomunicación, la realización de estudios, la emisión de informes y a todas aquellas actividades propias de la ingeniería de telecomunicación.

Segundo.- Que la Ley 2/2004, de 25 de febrero, de ficheros de datos de carácter personal y de creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos, en su artículo 10 apartado 1, crea la AVPD como ente de derecho público, con personalidad



dela, nortasun juridiko propioa eta gaitasun publiko eta pribatu erabatekoa izango dituela, eta herri-administrazioekiko inongo loturarik gabe beteko dituela bere eginkizunak; eta eginkizunak honako hauek direla funtsean:

i. Datuak babesteko indarrean dauden legeak bete daitezzen zaintzea eta nola aplikatzen diren kontrolatzea, batez ere, ukituen eskubideei dagokienez, titularrak diren datuetara iritsi, datuak zuzendu, datuen aurka egin eta datuak indarririk gabe uzteko.

ii. Lege eta erregelamenduetan zehazturik dauden baimenak ematea, eta, beharrezkoa bada, datuen tratamendua datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen legediko printzipioetara egokitzeko beharrezko jarraibideak ematea.

iii. Tartean direnen eskariei eta erreklamazioei kasu egitea eta datu pertsonalak tratatzea dela-eta dituzten eskubideei buruzko informazioa ematea pertsoneri.

iv. Herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek edo bestelako persona fisiko edo juridikoek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten kontsultei eta txosten-eskeei erantzutea.

v. Datu pertsonalen babesaren gaineko kulturaren zabalkundea egitea, herritarrak sentsibilizatuz eta prestakuntza nahiz jardunbide egokiagoen erabilera bultzatuz erakunde publikoetako langileen artean.

Aldeek, datu pertsonalen babesaren arloan segurtasuna bermatzeko telekomunikazioek duten garrantziaren jakitun, adierazi nahi dute erakundeok, bakoitza bere eskumen esparruan arituz, bata bestearekin lankidetzaz aritzeko eta

jurídica propia y plena capacidad pública y privada, que actúa con plena independencia de las administraciones públicas en el ejercicio de sus funciones; siendo éstas, entre otras, las siguientes:

i. Velar por el cumplimiento de la legislación vigente sobre protección de datos y controlar su aplicación, en especial en lo relativo a los derechos de los afectados respecto al acceso, rectificación, oposición y cancelación de los datos de carácter personal de los que son titulares.

ii. Emitir las autorizaciones previstas en las leyes y reglamentos, así como dictar, en su caso, las instrucciones precisas para adecuar los tratamientos a los principios de la legislación vigente en materia de protección de datos de carácter personal.

iii. Atender las peticiones y reclamaciones formuladas por los afectados; además de proporcionar información a las personas acerca de sus derechos en materia de tratamiento de los datos de carácter personal.

iv. Atender todo tipo de consultas e informes que, con relación a la protección de datos de carácter personal, le sean solicitados por las administraciones públicas, instituciones y corporaciones, así como por otras personas físicas o jurídicas.

v. Difundir y extender la cultura de la protección de datos de carácter personal, sensibilizando a la ciudadanía y potenciando la formación y la adopción de mejores prácticas por parte de los trabajadores de las instituciones públicas.

Conscientes ambas partes de la importancia de las telecomunicaciones para garantizar la seguridad en la protección de datos de carácter personal manifiestan la necesidad de colaborar en las respectivas áreas de competencia y formalizar



lankidetzaz hitzarmen hau gauzatzeko premia ikusten dutela, eta horrela datu pertsonalak babesteko esparruan segurtasuna sustatu, ondoko estipulazioak kontuan hartuta.

el presente Convenio Marco contribuyendo de esta forma a impulsar la seguridad en el ámbito de la protección de datos de carácter personal con arreglo a las siguientes

## ESTIPULAZIOAK

## ESTIPULACIONES

### LEHENENGOA.- Xedea.

### PRIMERA.- Objeto.

Esparru hitzarmen honen xedea da DBEBren eta COITPV-EHTIEO eta AITPV-EHTIEren arteko lankidetzaz hitzarmen bat finkatzeko oinarriak ezartzea, datu pertsonalak babesteko oinarriko eskubidearen gainean zabalkundea, kontzientziarazioa, sentsibilizazioa eta prestakuntza sustatzeko eta bultzatzeko, bai eta telekomunikazioen segurtasunari dagokionean ere.

El objeto del presente Convenio Marco es el establecimiento de las bases para un marco de colaboración entre la AVPD la COITPV-EHTIEO y la AITPV-EHTIE con el fin de fomentar y promover la divulgación, concienciación, sensibilización y formación con respecto al derecho fundamental a la protección de datos de carácter personal y a la seguridad de las telecomunicaciones.

Elkarrekin egiten den jarduera bakoitzeko berariazko hitzarmen bat egin beharko da.

Cada una de las actividades conjuntas necesitará la elaboración de un convenio específico.

Aldeen arteko lankidetzaz honako esparruetan burutuko da:

La colaboración entre las partes se extenderá, entre otros, a los siguientes ámbitos:

- Datu pertsonalen babesa eta segurtasuna sustatzen duten jarduerak burutzea.

- Promoción de actividades dirigidas a impulsar la seguridad y la protección de datos de carácter personal.

- Aldeek, erakunde bakoitzak bere eskumenen esparruan antolatzen dituzten eta interesekoak diren hitzaldiak, biltzarrak, ikastaroak, mintegiak, jardunaldiak eta topaketak abian jartzea, gauzatzea eta horien zabalkundea egitea.

- Participar en la divulgación, puesta en marcha y realización de conferencias, congresos, cursos, seminarios, jornadas y encuentros que ambas partes organicen en el ámbito de sus respectivas competencias y que sean de interés.

- Eskuliburuak, gidak, gomendioak eta, oro har, datu pertsonalen babesari eta segurtasunari buruzko testuak egiten eta horien zabalkundea egiten laguntzea eta aholkularitza ematea.

- Colaborar y asesorar en la elaboración y difusión de manuales, guías, recomendaciones y, en general, otros textos relacionados con la protección de datos de carácter personal y la seguridad de los mismos.

- Euskal Herriko Telekomunikazio Ingegnarien

- Permitir el uso y distribución de artículos,





**Datuak Babesteko**  
Euskal Bulegoa  
Agencia Vasca de  
**Protección de Datos**



Elkargo Ofizialak (COITPV-EHTIEO) edo Euskal Herriko Telekomunikazio Ingeniarien Elkarte Ofizialak (AITPV-EHTIE) edo Datuak Babesteko Euskal Bulegoak (DBEB) egindako artikulua, eskuliburuak, gidak, gomendioak, ikerketa proiektuak edo bestelako materialak erabiltzeko eta horien zabalkundea egiteko baimena ematea.

manuales, guías, recomendaciones, proyectos de investigación u otros materiales elaborados tanto por El Colegio Oficial de Ingenieros de Telecomunicación del País Vasco-Euskal Herriko Telekomunikazio Ingeniarien Elkargo Ofiziala, la Asociación de Ingenieros de Telecomunicación del País Vasco, y la Agencia Vasca de Protección de Datos con expresa mención a su autoría.

**BIGARRENA.-** Urteko jarduera plana, egitasmoak eta jarduera zehatzak.

**SEGUNDA.-** Plan de actuación anual, programas y acciones específicas.

Datu pertsonalak babesteari buruzko zenbait egitasmo eta ekintza zehaztu ahal izango dira Hitzarmen honen esparruan. Era berean, urtero eta ekitaldi bakoitza hasi aurretik, urteko jarduera plana erabaki ahal izango da.

En el marco del presente Convenio podrán establecerse programas o acciones específicas en el ámbito de la protección de datos de carácter personal. Asimismo, con carácter anual y previo al comienzo de cada ejercicio, se podrá concretar el plan de actuación anual.

Egitasmo, jarduera edo plan horiek zehazteko alde zehatz nahikoa denbora eta behar den aurrekontua egongo dira. Aldeek adostuko dute zein izango den kostu ekonomikoa eta egitasmo, jarduera edo plan horietan bakoitzaren parte hartzea.

Dichos programas, acciones o planes deberán ser definidos con la suficiente antelación junto con el presupuesto que, en su caso, sea necesario, concretándose los costes económicos así como la participación en los mismos, de común acuerdo entre las partes.

**HIRUGARRENA.-** Hitzarmenaren jarraipena.

**TERCERA.-** Seguimiento del convenio.

Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea eratzen da. Batzordeak lau kide ditu, hau da, alde bakoitza ordezkatzeko bi

Se crea una Comisión de Seguimiento del Convenio integrada por cuatro miembros, dos en representación de cada una de las partes firmantes.

Aldeetako batek eskatzen duenean bildu daitekeen arren, urtean gutxienez behin bildu beharko da, eta honako eginkizunak izango ditu.

Dicha Comisión se reunirá siempre que lo requiera cualquiera de las partes y como mínimo una vez al año y tendrá las siguientes funciones:

i. Urteko jarduera plana, egitasmoak eta jarduera zehatzak zehaztea, halakorik badago, eta jarduera horiek nola gauzatu eta finantzatuko diren zehaztea.

i. Concretar, en su caso, el plan anual de actividades, y los programas y acciones específicos, así como la forma de realización de las actividades y su financiación.



- |   |   |
|---|---|
| <p>ii. Planak eta egitasmoak betetzen direla egiaztatzeko jarraipena eta diru-baliabideen jarraipena egitea, halakorik egonez gero; eta, egoki ikusten bada, hobetzeko ekintzak proposatzea.</p> <p>iii. Hitzarmenaren ezarpenaren eta interpretazioaren gainean egon daitekeen edozein gorabehera ebaztea.</p> | <p>ii. Realizar un seguimiento del cumplimiento de los planes o programas y, en su caso, del destino de las asignaciones y la propuesta de acciones de mejora.</p> <p>iii. Resolver sobre cualesquiera otras cuestiones relacionadas con la aplicación e interpretación del Convenio.</p> |
|---|---|

Batzordearen idazkariak bilera bakoitzaren akta jaso beharko du. Aldeen adostasunarekin hautatuko da idazkaria.

De cada reunión se levantará la correspondiente Acta por parte del Secretario de la Comisión, que será designado de común acuerdo entre las partes.

**LAUGARRENA.-** Hitzarmenaren iraupena eta hitzarmena bukatzeko arrazoiak.

**CUARTA.-** Vigencia del convenio y causas de resolución.

Hitzarmen hau izenpetu eta hurrengo egunean egongo da indarrean eta bi urteko iraupena izango du. Epe hori automatikoki luzatu ahal izango da, kontratua bukatzeko honako arrazoiren bat egon ezean:

El presente Convenio entrará en vigor al día siguiente al de su firma y mantendrá su vigencia durante dos años prorrogables automáticamente por períodos idénticos, salvo que medie alguna de las siguientes causas de resolución:

- Aldeetako edozeinek kontratua idatziz salatzen badu, hiru hileko aurretiaz.
- Hitzarmenaren klausulak ez betetzea.
- Aldeek aho batez hitzarmena azkentzea erabakitzea.

- La denuncia de cualquiera de las partes formalizada por escrito con tres meses de antelación.
- El incumplimiento de las cláusulas del Convenio.
- El mutuo acuerdo de las partes.

Hala ere, hitzarmen honen babesean aldeek adostutako urteko jarduera planek eta programek edo jarduera zehatzek indarrean segituko dute bertan erabakitakoa bukatu arte.

No obstante lo anterior, los planes de actuación anual, así como los programas o acciones específicas acordados al amparo del presente Convenio, mantendrán su vigencia hasta la finalización de lo acordado en los mismos.



**Datuak Babesteko**  
Euskal Bulegoa  
Agencia Vasca de  
**Protección de Datos**



**BOSGARRENA.-** Hitzarmenaren nondik norakoa eta jurisdikzio eskuduna.

Hitzarmen honek administrazio-izaera du eta Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren ezarpen eremutik kanpo geldituko da.

Hitzarmen hau interpretatzean eta gauzatzean sor daitezkeen desadostasunak, Jarraipenerako Batzordeak konpontzen ez baditu, DBEBren egoitzari dagokion administrazio-auzietarako jurisdikzioak ebatziko ditu.

Ados daudela adierazteko, alde guztiek izenpetzen dute lankidetzan hitzarmen hau, hirukoiztuta, hasieran adierazitako tokian eta egunean, eta lankidetzan hitzarmenaren ale bana hartzen dute.

Izpta.: **José Ignacio Pariente de Prada**  
Datuak Babesteko Euskal Bulegoa  
Agencia Vasca de Protección de Datos

**QUINTA.-** Naturaleza y jurisdicción competente.

El presente convenio tiene naturaleza administrativa, considerándose excluido del ámbito de aplicación del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.

Las controversias que puedan surgir sobre la interpretación y ejecución que no sean resueltas por la Comisión de Seguimiento, se sustanciarán ante la Jurisdicción Contencioso-Administrativa en cuya circunscripción tenga la sede la AVPD.

En prueba de conformidad, las partes intervinientes firman el presente Convenio Marco, por triplicado ejemplar y en el lugar y la fecha indicados en el encabezamiento, quedando un ejemplar en poder de cada una de las partes.

Izpta.: **Alvaro Urbiena Alonso**  
Euskal Herriko Telekomunikazio Ingeniarien  
Elkartea  
Asociación de Ingenieros de Telecomunicación del  
País Vasco